

Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiekin eta

gainera...

Bidaia-

asistentziako

doako aseguruak

abantailak era

guztietako 2.000

establezimendutan.

Deskontuak

mundu osoan

izateko giltza.

Kontsultatu

BBK26 gida,

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

orrian

# MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

# Deirtzen

Lege gordailua: BI-85-98  
ISSN: 1577-9025

2006ko ekaina  
89. zkia. Doan

Traukuko jostuna

Resaka taldea

Elurnet

**Eider Uruburu**

*"Baserriak etorkizuna dauka  
baina beste bide bat  
topatu behar du"*



## Zubibarriko mahastiak

*Antxinean Boluetako taberna famatua izan zan. Ospe handia euki eban txakolindegi modura. Zubibarriko zubitik hurrean egoan, ezkerrean, eta hari zor eutson izena. Bertako mahats orrien gerizan egoten ziren edanean mahatsorriak eta bilbotarrak. Kantu baten be aitatu ebezan 'las parras de puente nuevo' erdarazko izenagaz. Argazkian, koadrila bat txakolindegiaren aurrean.*



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia .....	4	▶ Inkesta .....	19
▶ Traukuko jostuna .....	5	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Begoña eta euskerea ..	8	▶ Pico de los Jorrios .....	25
▶ Santutxuko Jaiak .....	10	▶ Hezkuntza .....	26
▶ Elurnet .....	12	▶ Resaka Taldea .....	28
▶ Elkarrizketa: Eider Uruburu .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30

Tiroakaz hasi direz oingo hilien Bertonekoak, Zinturondeieroko batallak, traiziñoak eta kontuek. Kontu kurioso, fatxak Bilbon sartu orduko errekan besteko aldera erretirau ziren danak zubidexek botata. Hau de, hau gure parte guztidxe ixin zan lehenengoa jausi zana. Sartu be, tankiek-ta Larreagaburun ta Atxurik behera sartu ei ziren, Santutxutik-edo pasaute. Lastima, Santutxun trafikoa ta direkziñoak zelan ifini deittuzen ikusite, Zinturoie baino defentsa hovie eukingo genduke: ondiño-karren egongo ziren semaforon baten ataskaute edo Bilbora nondik bajau asmau ezinien. Ta ez zan ha konponduko zeuen planorik ixingo. Traidorientzat negozio txarra gero! Ta metroan inbadituten bajatie ez da gerrie eitteko era seridxoia.

Santutxukoak ganera ixitekoak direz ixen. Aiuntamentuek barrkada nahikorik ifini ez badeittu, festarako zer ekarri ta Zuberoako maskaradie, bai, horreik barrkadarik barrkada Napoleonen denborako pelikuletan lez jantzitte jantzan ta brinkoan ibiltzen direzenak. Hori da hori superaziñoa, kristo elegantea deko-gula, handidxegoa ein biher dogu ondiño. Santutxutik Franco ta Mola ezeze Bush-en mutilek be ez littikez pasauko oingoa.

Halandabe, ez eizue pentsau honegaz kristoagaz Santutxukoak bertan ataskaten direzela, ez ba! Nondik urten ensegidan asmaten daurie.

Portadako neskie barbarako. Harek, zelan ez dakigula, Santutxutik eskapau ta aldeara joan da, solora beharrean joan be. Santutxun bertan lurre irulitten daukien modura, bertan egin zeinkie ortu elegantea neskatoa, atxurre idxe koiu barik ganera. Porruek ifini ta listo. Obrak akabau artien porrutan hartu leike partide bat.

Beste batzuek kabletatik eskapau daurie. Fisikamentien ez, baie igesi birtuala egin daurie ta auzo intangible majoa montau daurie interneten. Baie kontuz neska-mutilok! Hainbeste obragaz kabliek be ez dagoz bape seguruek, pasau zaittezie wifire atoa! ezpabere edozein egunien hori auzo guztidxe Artxandako kasinoan modura jausiko da.

Musikoak be badagoz, hareik urteko beste taktika bat daukie. Diskoa grabau ta eureri urtetie kostaten jakien arren, zagatiek behintzet urtengo dau. Ikusi ez, baie entzun, entzungo dotzie hametik kanpora. Trafikoko zagatiegaz zozer entzun balei?

Traukuko joskilek itxi ein biher dabela be kontaten daurie. Inok ez ei dau harena hartu gure. Egidxe ixingo da joskile onak falta doguzela, ze Santutxuko josi dabenak firuek ta orratzagaz ez deko abilitade asko, ez. Harek egineko prakak burdinazko garrikoagaz be jausi.

JUAN DE GARDEAZABAL KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko beheko aldean, Santutxuko auzunean, Juan de Gardeazabal kalea topatzen dogu. Kale honek batzen ditu Santutxu kalea eta Fika kalea, San Frantziskito eleizatik hurrean.

Beraren izena, barriz, begoñatar izentsu baten omenez ipinita dago. Izan bere, Juan de Gardeazabal y Garai 1923. urteko zemendaren 27an jaio zan Begoñan, eta 1969. urtean hil zan. Hasikeran, futboleko jokalaria izan zan, besteak beste, San Esteban eta Begoña futbol taldeetan jokatzen eban, eta Valladolideko Alas futbol taldean jokatzen heldu zan. Min hartu eban, eta futbola bertan behera laga behar izan eban; hori zala eta, epaileen alkargotan sartu zan 1946-47ko denboraldian.

Futboleko epaile legez, maila guztietan jardun eban; egin-eginean bere, lehenengo partidua erregionaleko hirugarren mailako Zeanuri eta Zamudio taldeen artekoa

izan zan, eta kategoria guztietatik igaro eta gero, 1952-53ko denboraldian Espainiako futbolaren lehen mailara igon eban, eta Coruña eta Sevillaren arteko partidua izan zan epaitu behar izan eban lehenengoa.

Hor gelditu barik, handik urte bira nazioarteko mailara igaro eban, eta lehenengo partidua handik urte bira epaitu eban maila horretan. Harrezkero, 1958ko urtean, Suediako mundu-txapelketan jardun eban, bai eta Txileko 1962koan eta Ingalaterrako 1966koan. 1969. urtean hil zan, 46 urtekoa zala, 1970. urtean, Mexikoko mundu-txapelketan epaitzeko izentauta egoala.

GOTZON LOBERA REVILLA

# TRAUKUKO JOSTUNA

## URIBARRIKO AZKEN JOSTUNA LASTER JUBILATUKO DA ETA INORK EZ DIO NEGOZIOARI SEGIDARIK EMANGO

Urte mordoa lanean, bizitza oso bat esan daiteke, eta oraindik eusten dio hasierako ilusioari. Aurpegian ederto igartzen zaio, baita berba egiten duenean ere.

Ondorengoa aurkitzea zaila suertatzen den ofizio batekoa da Ramon Bahamonde. Jostuna da, Trauku kaleko jostuna. Baina jostuna baino artisaua da berez. Jantzi guztiak mimo handiz egiten ditu-eta.

Testua: *Ixaso Perez*

Argazkiak: *Iñigo Azkona*



ARGITARATZAILEA:  
Batana Batu Kultur  
Elkartea

ERREDAKZIOA:  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA  
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:  
Arrate Diez,  
Eneritz Ibarondo,  
Nerea Aburto,  
Iratxe Ruiz,  
Dabi Piedra,  
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:  
Iñigo Azkona  
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Iñaki Berastegi  
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:  
Alberto Ugarte, Iñaki  
Gaminde, Igor M. de  
Vidales, Santutxuko  
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,  
Jose Otazua,  
Benito Fiz


ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:  
Koldo Urrutikoetxea,  
Arrate Diez  
LEGE GORDAILUA:  
Bi-85-98  
ALE KOPURUA:  
1.900

Ramonen dendara sartu baino lehen eskaparateari erreparatu diogu. Ez genuke esango jostun baten denda denik. Noiz josi zain dauden lau prangkatik ez balitz ... Esan bezala, artisaia da Ramon. Erakuslehoaren ezkerreko paretan poster batek 'zuekin ez' leloa dauka, eta azpian eskeletoen irudiak daude, baita hainbat jende biluzik ere argazkietan. Behean, itsasoarekin erlazionatutako panpinak eta bestelakoak. Eta eskuineko eskaparatean, botilak gordetzeko armairutxo... lixi-ba botilez beteta! Baina, zer da hau? Eta azpian, kortxoak tapoi mordoa pilatuta. Gaietako horman, 'Txoriak txori' abestiaren letra euskaraz eta gazteleraz, eta loreen irudiak. Jendea biluzik ere.

Horren guztiaren azalpena sarrerako atean duen egunkari bateko orrian dago, errotuladorez azpimarratuta. Jendea biluzik argazkietan ateratzen duen argazkilaria kritika da, pertsonak horrela 'erabiliz' biluziteaz gain dignitatea eta pertsonalitatea ere erantzten omen dielako nolabait. Artikulua irakurrita hobeto ulertuko duzue esanahia. Traukutik pasa zaitezte, merezi du.

Beti ateratzen du tartetxo bat halako lanak egiteko. Eskaparatea hilerok aldatzen duelako: lagun batek ekarri dion eskultura ipini, berari bururatu zaion ideia bat islatu,... auskalo! Familiak ere laguntzen dio. Ramon Bahamondek munduari esateko dituen mezuak zabaltzeko erabiltzen du eskaparatea, baita jendea erakartzeko ere. Baina gehien gustatzen zaiona da umeak hurbiltzen direnean eta detaile txikiak begiez harrapatzen ikusten dituenean. Umeek dena ikusten dute.

Harira joanda, jostuna izateak txikitako zaletasunari erantzuten dio. Zazpi edo zortzi urterekin josten hasi zen, bere izeko baten ondoan. Askok gustatzen zitzaion. Padrón ingurukoa da, galiziarra. Bilbora 15 urte zituela etorri zen. Osaba bat hemen zeukan eta berari animatzeko esan zion. Ramonen aita Argentinan egona zen, eta hara inola ere ez joateko esan zion, baina Bilbora nahi bazuen, aurrera. Hamar neba-arreba dira, eta denei ofizio bat irakatsi zien aitak, eduki zituen ahalbideen arabera, baina denak gus-



**BERROGEI URTE**

Ramonek patxadaz erantzun du. Bere dendarekin hasi orduko bazituen harremanak, Zazpi Kaleetan lanean aritu zenekoak. Ezagunek, berak zelan josten zuen zekitenek, euren konfiantza eman eta ez zuen ia inoiz aurkezpen kartarik behar izan, ezta berak jositako jantzirik aurkeztu behar. Hainbeste maite du ofizio hori ezen jantzi bat hartzen duen bakoitzean lehena izango balitz bezala egiten du. Eta bera da lehena esaten bere jantzietan akatsa ikusten badu. Jantzi guztiak ezberdinak eta gainera, ezin dituelako perfektuak egin. Berak bilatzen duena da bezeroa pozik geratzea, "gustura bere jantziarekin", zehaztu digu.

Baina orain penaz dago jubilazioa

tura emandako horrekin. Aita bera sukaldaria zen. Iaz hil zaio. Ofizioa ikasita, Bilbora etorri eta 16 urterekin Zazpi Kaleko Lozano jostunaren agindupean ipini zen hogeiei urte bete zituen arte. Bertan 'piecero' lanean aritzen zen, jantzietarako atalak egiten eta ebakitzen. Baina hogeiei urte egin eta soldaduskara joan behar izan zen. Soldaduska amaituta bere jostundenda ipintzea pentsatu zuen, baita halaxe egin ere. 1966 urtean Trauku kaleko denda zabaldu zuen. Orduan dendaren aurrean txaletak zeuzkan, atera kontuak.

gertu daukalako eta ez dago inor bere ofizioari eusteko. Ez du inork ikasi nahi. Arrazoiak, besteak beste, negozio bat baino artisautza dela, eta bezero bakoitza mundu bat delako. Diru gehiago irabazi nahi izango balu bazeukan aukera beste leku batean lan egiteko. Baina nahiago zuen bestela, eta ardura gehiago dela ere, ez du konpentsatzen irabazten duen diruarekin. Hau da, bezeroari egokiagoa den kolorearen inguruan, oihaltaren inguruan eta jaka motaren inguruan aholkuak eman behar izaten ditu, arreta oso berezitua pertsona bakoitzari, eta hori oso ardura handia izaten da. Gainera, ez dago ordutegirik. Denda zabaldu eta ixteko bai, "baina jantzi bat aste betean egin behar bada, aste betean amaitu behar, zortzi orduz egunean lan eginez edo behar izanez gero, hamazortzi", . Bere abantaila ere badauka, berak nahi duenean aspal-di ikusi barik zeukan bezero harekin kafetxoa hartzeko parada egin dezake-elako. Baina ez da ohikoena.

Leku askotako bezeroak ditu. Bilbon bertan, auzokideak. Inguruko auzoetako batzuk ere, baita Algortakoak... Baina baita Valentziakoak, Urduñakoak, Portugaletekoak, Zornoztakoak, Donostiakoak... Ez da publizitatea egin duelako, bere erreferentziaren bat izan dutelako baizik.

Bezero bat dator eta berriz bueltatzen den arte urte batzuk igaro ahal dira, normalean, praka pare edo egiten dizkielako eta horiek urratu edo zahartzean itzultzen direlako. Anekdotak bat esan digu Ramonek. Duela ez asko, Santutxuko bezero bat joan zitzaien esanez asko ez dela bertan



egon zela, eta Ramonek bere kontu liburuan begiratu eta... duela hamar urte izan zen!! Jakina, jantziak hobeak dira eta asko irauten dute. Gehiago ordaindu ere, baina kalitate onenetakoa egiten ditu. Horrek ez du esan nahi egiten dituen jantziak ez direla egunero erabiltzekoak. Aitzitik, prakak eta bulegoan lan egiten dutenentzako trajeak egunero-egunero erabiltzen ditu jendea. Beraz, jantzi onak dira horrenbeste urte modu onean erabili ahal izateko. Bulegoetarako, normalean gaur egun jantzi merkeagoak bilatzen dituzte. Baina badauzka bezero batzuk beren lanagatik ezin dutela jantzi edozein traje merke, eta horiek beti egiten dituzte neurria.

Eta prezioez hasi garela, ez dauka zerikusirik pertsonaren tamaina edo altuera traje baten prezioa erabakitze-ko. Horretan lan egiten behar duen denborak ere ez du aintzat hartzen. Ramonek epe bat izaten du beti jantzi bat amaitzeko, baina asko begiratzen du bezeroaren nahietara egokitzeko ahal den heinean. Horregatik, behin amaituta konponketarik egin behar badizkio, arazo barik egingo dizkio, eta hori amaierako prezioaren barruan egongo da, gehiago kobratu barik. Hori



bai, denbora epe bat badago konponketa horiek egiteko, hilabete bikoia normalean.

**KALITATE ONA**

Tailerra dendan bertan dauka. Josteko makina bi, lisatzeko beste bat, artazi erraldoiak, hariak, orratzak, manikiak... nahaspila eman dezakeena bere orde-

na dauka. Bere garaian hiru eta lau langile ere izan dira dendan, baina gaur egun emaztearen laguntza jasotzen du nonoiz, eta berak ere etxean laguntzen du. Bien artean ahal duten bezala banatzen dute lana. Josteko makinak zahar-zaharrak dira. Eibarren eginak, 'Alfa' markakoak, zaharrena 1962an 7.000 pezetaren truke erosita. Dirutza bat garai hartan.

Bezeroek gehien eskatzen duten trajea 'de entretiempo' delakoa izaten da, bai udan bai neguan erabili ahal izateko. Artilezko trajea egitea asko gustatzen zaio, baina ez du horrenbeste egiten garestia delako eta gerora, kalitatea jaisten doa gaur egungo tindategietara eramanez gero ez delako lehen bezala geratzen.

Eta ikusgarriena agian da josi behar diren piezak lotzean zer nolako lana duen! Hil banatuarekin bakarrik harritzekoa da dena zelan geratzen den eta zenbateko lana den. Traje ereduaren inguruan, mota asko aipatu dizkigu Ramonek. Klasikoak, botoi bikoak, hirukoak, jaka gurutzatuak, biribilduak,... . Koloreak ere aldatzen doaz, baina ez gehiegi ere: urdinak, marroi karmeldarra (fraideena) asko saldu da, "mila arraiadun" oihala. Eta galdetzen dugunean berak asmatutako modelorik daukan, erantzuna oso garbia. Gaur egun ez da ezer berriak sortzen eta aldi berean, bakoitzak bere egite berezia dauka. Gainera, zer edo zer berria egin nahi badu bezeroak erabakiko du amaieran, berak ordainduko duelako.

Ezkontzetarako traje asko egin ditu, baina gaur egun badira denda erraldoi horiek ezkontzako gauza guztiak prestatzen dituztenak, eta jostunei bezeroak kendu dizkiete, ezkontza kopurua gora egin duen arren.

Penaz berba egin digu bere lekua ez duelako inor beteko. Esan du ofizioa irakasteko akademiarik badagoela baina ez dutela irakasten traje osoak egiten baizik eta nolabait pieza egiten espezializatu, eta horrela lan egingo dutela gero. Ikasle horiek ez dute traje osoa egitearen artea ikasten. Ez bera bezala, berdin zaiola trajea egitea, soingainekoa edota soineko bat egitea. Eta harrotasun pitin batez ere argitu digu bera oso-oso pozik dagoela egindakoak, bere jantziak izan direlako, berak egindakoak, artisautza piezak.

# BEGOÑA ETA EUSKERIA

**Artxandan paratu dute gudari eta miliziar antifaxista guztien omenezko oroitarria. Leku egokia, bai horixe. 1937ko ekainean odola pol-pol isuri zen Artxandako aldatsetan Bilboren azken defentsa heroitsuan.**

## ARTXANDATIK SARTU ZIREN (1937)

Argazkiak: Euskaldunon Egunkaria / Aterpe 1936

Emilio Mola jeneralak 1937ko apirilean jo zuen Bizkaia mendean hartzeko eraso. Bitarteko militarretan guztiz nagusi zen (hegazkin, gerra-barku, artilleria eta gainerako arloetan) eta di-da baten Eibarretik Bilborako tartea egingo zuelakoan zegoen. Laurogei egun behar izan zituen, ordea, 45 kilometroko alde hori egiteko.

Eraso horretan Durango eta Gernika gupida barik bonbardatu zituzten matxinatuek. Apiril amaieran frontea apurtu eta egun gutxitan Bizkaia erdia bereganatu zuten. Maiatzaren hasieran Bakio eta Zornotza artean zegoen gatazka lerroa. Bilboren defentsarako Burdinazko Hesi mitikoa baino ez zen gelditzen.

### BURDINAZKO HESIA

Erdaraz Cinturón de Hierro esaten zutena fortifikazio lerro bat zen, Bilbo aldearen defentsarako. Bunker, metrailadora habiak eta lubakiak tartekatu zituzten. Eurretatik batzuk oraindik ere ikusgai daude gure mendi bazterretan.

Hala ere, patu txarraz jaio zen. Lehenengo arduradunak, Pablo Murga kapitainak, Wilhelm Wakonigg espioi naziari lanen planoak isilpean pasatu zizkion. Biak fusilatu zituzten. Astoa saldu eta burroa erosi egin zuen



Eusko Jaurlaritzak. Hurrengo arduraduna, Elorrioko Alejandro Goikoetxea ingeniaria 1937ko otsailan etsaiengana joan zen besapean hesiko planoak eta informazio militar oparoa hartuta.

Armada faxista Burdinazko Hesira ailega baino lehen garaipen bi lortu zituen. Airean erabateko nagusitasuna zeukatela aprobetxatuz, euren hegazkinak eta artilleriak errepublikarren posizioak txikitu egiten zituzten. Ondoren, eraso jotzen zuten. Horrela paratu zuten euren bandera Bizkargi mendiko tontorean eta Lemoako Atxan. Baina kasu bietan euskal armadako gudari eta miliziarrek azken hatsa eman arte defendatu zituzten posizio horiek, egunez galdutakoa gauaren

babesean berriz irabaziz eta etsai askoz ere ahaltsuagoari aurpegia emanez. Milaka gaztek laga zuen bere bizitza mendi bi horietako hegietan, faxismoari aurre egitearren.

Lemoako Atxa hartu baino lehen Mola bertan azaldu zen, Francorekin. Handik gutxira, ekainaren 3an, Burgosen hil zen hegazkin istripu baten. Bizkaia suntsituko zuela agindu zuen, Nafarroako matxinada antolatu zuen, milaka euskal herritar hiltzeko agindua eman zuen. Horregatik, euskaldun askoren poza izan zen bere heriotzaren berria. Bertsoak ere paratu zizkieten:

Eman behar zitula  
Suak eta garrak  
Hauek ziran orduko  
Molaren indarrak.  
Orain egin ditula  
Oso pauso txarrak:  
Bera hil da oraindik  
Bizi euskotarrak

Baina Mola hilda ere, faxistek ez zuten eraso bertan behera utzi. Goikoetxea traidoreak seinalatutako puntu baten jo zuten: Gamiz eta Fika artean, hesia amaitu barik zegoen lekuan. Beti bezala, lehenengo hegazkinak eta artilleriaz bonbardatu eta gero 20.000 gizonak eraso jo zuten. Eurretatik 10.000en bat sartu ziren. Hogeita lau ordutan Burdinazko Hesia apurtu zuten. Ekainaren 12a zen.

Matxinatuen armadak ez zuen atsedenik hartu. Biharamunean erreketek (karlistek) Zamudio mendean hartu eta Derioraino heldu ziren. Galdakaoko mendialdera ere iritsi ziren. Ganguren-Artxanda zen Bilbora sartzeko azken oztopoa.

### ARTXANDAN EUTSI

Eusko Jaurlaritzak defentsari eutsi zion. Beste leku batzuetatik Itxarkundia (EAJ) eta Karl Liebnicht (PCE) batailoiak Artxandara ekarri zituen. Eta mendi horretako hegietan gatazka latzak gertatu ziren. Txorierritik eraso jotzen zuten faxistek euren hegazkin eta artilleriaren babesean. Artxandako gainetatik miliziar eta gudariak defentsa gogorra egin zuten. Txikizioak ikaragarriak izan ziren. Besteak beste, Artxanda gainean zegoen kasinoa zeharo galduta gelditu zen. Defentsan jardun zuten askok biziarekin ordaindu zuten. Odola baldeka isuri zuten.

Egun gutxi batzuek eutsi zioten eraso faxistari, baina ez zegoen esperantzarik. Ibaia erdiaren eskuinaldea galtzekotan zeudela ikusita, Eusko Jaurlaritzak ekainaren 15ean Ariz, Etxebarri eta Boluetako zubiak lehertu zituen. Bilbo erdikoak hilaren 18an bota zituzten, faxistak sartzeko bezperako egunean.

Azkenean matxinatuek Artxandako goialdera helteza lortu zuten. Lehenengo Egirleta (Santo Domingo) bereganatu zuten eta handik goietatik zabaldu ziren. Bilbo zain zeukaten. Defentsarik gogorrena egin zuten horietako asko preso gelditu ziren, ibaia eta etsaiaren artean nora joan ez zeukatela. Ekainaren 19an lehe-



Parte del Cinturón de Hierro de Bilbao. CNT.



Un grupo de milicianos de un Batallón de la UGT del Ejército vasco, apuntando con sus armas, algunas de ellas muy rudimentarias, en algún lugar del frente de Gipuzkoa. Fundación Sabino Arana.



Un grupo de gudaris del Batallón "Saseta", EAJ-PNV, con su ametralladora en una trinchera del frente. Fundación Sabino Arana.

nengo indar faxistak Bolueta, Larreagaburu eta Atxuritik Bilbora sartu ziren. 1970 urte geroago, 2006ko ekainean, Bilbo ez da irabazle harro haiekin gogoratzen. Ohore eta estimazio guztia galtzaileentzat dauka.



## Halderapeko

### euskal kultur gunea

www.halderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005 bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99

# SANTUTXUKO JAIEK

## ZUBEROAKO MASKARADA EKARRIKO DUTE

Uztailaren 8tik 16ra auzoko kaleak olgeta, musika eta parrandaz beteko dira

**Sorkun duna**  
**santutxuko jaiak** uztaialak 14 ostirala 22:00  
**DIRUA**  
 www.myspace.com/dirua + www.puntodemira.biz  
**Punto de mira**

*Beste urte batez uda heldu da, oporrak ere helduko dira, eta bitartean, eta Euskal Herriko beste hamaika herri, hiri eta auzoetan bezalaxe, Mahatserrira udako jaiak heldu dira. Uztailan, hain zuzen, Santutxu auzokoak izango ditugu gure artean. Aurten, besteak beste, Zuberoako maskarada ekarriko dute.*

Testua: Nerea Aburto  
 Argazkiak: BERTON

Uztailaren 8an jaurtiko den txupinarekin emango zaie 2006 urteko Santutxuko Jaiei hasiera. Ekitaldi horrek, auzoko koadrilak bilduko ditu, ohi denez, Basarraten antolatzen den bazkarian. Geroago, auzoko tabernetatik poteo bereziaren eta koadriren jaitsieraren ondoren, pregoia irakurriko da. Hortik aurrera, Santutxuko Jai Batzordeak antolatutako festa programak hamaika kontu ekarriko ditu. Auzoko kale eta txokoak auzotarrek zein bisitariak parte hartzeko hainbat ekitaldi eta ekintzekin beteko dira.

Aurtengo jai programako aldaketarik nagusia aurreko urteetako futbi-

to txapelketaren ordeztatutako eskupilota lehiaketa da. Bertan, nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute, adin mugarik gabe, eta partiduak Karmelo Ikastolan jokatuko dira.

### MASKARADA

Aurten indarra izango duen beste ekintza bat, dudarik gabe, Gaztedi dantza taldearen eskutik auzora hurbilduko den Urdiñarbeko Maskarada da, Karmengo egunean (uztailaren 15ean) goizez eta arratsaldez antzetzuko dena. Izan ere, urtean-urtean maskarada egiteko ardua herri batek hartzen du eta aurtengoa Urdiñarbe-

ko gazteei egokitu zaie ohore hori. Eurak Santutxura etorriko dira araruste aroko ospakizun zoragarri hori gurean egitera.

Baina berrikuntzez gain, Santutxuko jaietan klasikoak diren beste batzuk ere gure gozamenerako antolatu dira. Hala nola, urteroko bakailao, marmitako edo paella txapelketek, sukaldari zaletu eta jatun onak bilduko dituzte eta ziurrenik etxean lapikotara hurbiltzen ez diren askorentzako aitzaki ederra izango dira.

Nola ez, musikak ere bere garrantzia izango du aurtengo jaietan eta, horregatik, adin ezberdinetako pertsoneri zuzendutako hainbat ikus-



kizun antolatu dira; nagusien artean arrakasta handia duten berbenekin batera, gazteagoei zuzendutako rock kontzertuak ere egongo dira. Berbarako, ostiralean Sorkun, Punto de Mira eta Dirua taldeen kontzertua izango da.

Programa, dagoeneko ohitura bihurtu diren mus, tute edo igela txapelketekin eta ia egunero kalea musikaz beteko duten gaitero, txistulari eta fanfarreekin osatzen da, txosna eta barraka guneei jai giroan murgiltzeko leku aparta direla ere ahaztu gabe, noski.

Eta, Santutxuko Jai Batzordeak antolatutako programa honetan agertzen diren ekintzez gain, badira beste batzuk ere auzotik jai giroa zabaltzeko balio izango dutenak: hala, taberna ezberdinek urtero antolatzen dituzten txapelketak edota Santutxuko Merkatarik Elkarrekin umentzako antolatzen dituen jokoak.

### OZTOPOAK

Azken urteotan auzoko jaiak ospatzeko zailtasunak, aurten ere gertatu direla ematen du, behintzat diru-



laguntzei dagokienez. Izan ere, mila euro inguruko dirulaguntza lortzeko baldintzak gogortzeaz gain (gero eta paper gehiago, epe laburragoak,...) kopuru horrek nekez betetzen duela 30.000 eurotako jaien aurrekontua.

Baina, Udalaren kudeaketak

beste arazo bat ekarri du aurtengo jaietara, hain zuzen, Gargantuak aurtengo Santutxuko kaleetara helduko denik ezin izango delako ziurtatu. Antza denez, Gargantuaren neurriak lar handiak dira garabiek garraiatu ahal izateko, eta horregatik, ezin dute Elorrietako biltegitik atera. Aurreko urteetan legea eta neurria berdinak izan diren arren, orduan ez zen garraiatzeko oztoporik agertu. Momentuz, Udalaren esku dago legea aldatzea, Gargantua Santutxuko eta Bilboko beste auzoetako jaietara ekar dezaten, baina arazo hori hainbeste urte eta gero konpondu gabe egonda, zaila izango da hain egun gutxiren buruan konponduko dutenik sinistea.

**PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!**

**Sugea taberna** Iturriaga, 92  
 kazolatxoak eta pintxo goxoak

**Garraioak**

Deitu:  
 Jabi: 607 43 17 91  
 Txema: 607 19 68 33

## SAREAN EUSKARARARI BIDEA EMANEZ

Mahatsorri bik bederatziehun blogen habia den Elurnet enpresa sortu dute

*Liher Elgezabal eta Susi Rodriguez mahatsorriek Elurnet enpresa sortu zuten, euskara informatikaren mundura hurbiltzeko. Harrez gero, blogen mundua gure hizkuntzara gerturatu ere aitzindari izan dira, Blogari.net proiektu arrakastatsuen bidez. Filosofia argia dute: zerbitzua euskaraz eskaintzea eta, gainera, hortik sortutako etekinak euskalgintzara bideratzea.*

*Testua: Dabi Piedra  
Argazkiak: Iñigo Azkona:*

Badira hiru urte inguru Liher Elgezabal eta Susi Rodriguez informatikari mahatsorriak Elurnet sortzeko ideia mamitzen hasi zirenetik. Euskarazko zerbitzu informatikoak jendeak uste ohi duen baino bezero gehiagok eskatzen zituela konturatu ziren eta ohiko enpresak ez zeuden behar bezala prestatuta eskari horri aurre egiteko.

Susi eta Liherrek berehala ikusi zuten aukera ederra euskararen alde egiteko ez ezik, beren bilakara profesionalean aurrera jotzeko ere. Enpresa bat sortu eta aurrera eramatea ez da lan erraza, ordea, are gutxiago ikasketaz informatikaria denarentzat, baina ilusioa eta lan egiteko gogoia sobera zuten bi gazte mahatsorriek nonbait, eta

Elurnet sortu aurretik ikastaro batzuk egin behar izan zituzten, enpresa ikuspegia hartzeko.

Beren proiektuari Elurnet izena jarri zioten eta azkenik, 2005eko urrian, martxan hasi ziren. Momentu honetan, Susi Rodriguez Zurbaranbarriko gaztea da arduradun nagusia eta bi langile dauzka soldatapean, biak ere euskaldunak. Elurneten beste sortzailea izan zen Liher Elgezabal santutxuarra, aldiz, enpresatik kanpo ari da lanean orain, baina ez du galdu kontaktua lankide ohiekin eta laguntza handia eskaintzen die sarritan.

### EUSKARA HUTSEZ

Elurnetek ezaugarri bereziak dauka, beste informatika enpresa ba-

tzuekin alderatuta: alde batetik, zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzen dituzte eta, beste alde batetik, software librea delakoaren aldeko apustua egin dute. Jarduteko modu berezi hori dela eta, hasieratik bezero fidelak izan dituzte, Susi eta Liherrek diotenez, emandako zerbitzuaren truke, dagokiena ordaintzeaz gainera, "bezeroek eskerrak ematen dizkigute eta aurrera jarraitzeko animoak eman eta horregatik harro gaude".


Enpresak arrakasta izan du euskaldunen artean eta Bizkaian ez ezik, Gipuzkoatik ere eskari ugari etortzen zaizkie eta Nafarroan ere badaukate bezeroen bat, "Euskal Herri osoan jarduten gara" zehaztu dute Elurneten sortzaile mahatso-

riek. Eskaintzen dituzten zerbitzuen artean, informatikarekin lotutako euskarazko ikastaro eta hizaldiak daude, eta oso eskari handia dute alor horretan. Elurnetekoentzat zaila da mintzaldiak prestatzea, materiala euskarara itzuli behar dutelako, baina jendearen eskerrenak aurrera jarraitzeko indarra ematen die.

Beste alde batetik, enpresentzat egokitutako programak eta aplikazioak prestatzen dituzte, bezeroaren beharretara egokituz eta aholkularitzan ere badihardute, enpresa bakoitzari komeni zaizkion zerbitzuei eta ordenadoreentzako segurtasun neurriei buruz gomendioak emanez. Hori guztia ere, noski, euskara hutsez eskaintzen dute, sarritan aplikazioen euskarazko bertsioa Elurneten bertan sortu behar badute ere.

### BLOGARIEN HABIA

Ohiko zerbitzuak eskainiz lortzen diren etekinak euskararen inguruko proiektuetan inbertitzeko erabakia hartu zuten enpresa sortu zutenean, izan ere, Liher eta Susi euskaltzaleak izan dira betidanik eta Elurnet, irabaziak sortzeko baino zerbaiz gehiagorako sortu zutela argi daukate, eta euskara teknologia berrietan murgiltzeko ardura ere beren gain hartu dute. Ideia horri jarraituz sortutako proiekturik garrantzitsuenak eta famatuena Blogari.net web orria da, blog delakoan mundua euskarara hurbiltzea posible egin duena.



Bi berezitasun dauzka Blogarik, arrakasta ekarri diotenak. Alde batetik, euskaraz blogak sortzeko aukera eskaintzen lehenak izan ziren Elurnetekoak, Blogari 2005eko azaroan jarri baitzuten martxan, Euskal Herrian beste inork baino lehenago.

Bestalde, blog komunitate guztiz irekia da, beraz, edonork sortu leza ke bere bloga, inori baimenik eskatzen ibili barik. Hasieran proiektu xume gisa hasi zena oso arrakastatsua bihurtu da denbora laburrean. Atera kontuak, Blogari.net zabaldu eta lehenengo egunean 40 erabiltzaile erregistratu ziren, nor bere blog berriarekin, jakina. Gaur egun,

900 blogetik gora ditu (batzuk bertan behera utzita daude, nolahi ere), eta ezin konta ahala irakurle fidel. Batz besterik, 20 mezu berri idazten dira blogari.neten, egunero. Gaien aldetik, aldiz, denetarik dago, aipagarrienak 'Filoblogia', hizkuntzalaritzari buruzko blog bitxia eta Egizu Getxo Euskaldun elkartearena izan litezke, erabiltzaile kopuruari dagokionez.

Badaude, horiez gain, bidaiei buruzkoak edota eskoletan sortutakoak ere, eta euskaltegi edo kultur taldeetakoak ere ez dira falta. Erabiltzaileek gehien estimatzen dutena, Blogari.neten hurbiltasuna da, izan ere, iradokizun guztiei ahal bezain azkarren erantzuten saiatzen dira eta irakurleen hainbat proposamenen bidez zerbitzua hobetuz

joan dira. Elurneten asmoa, webgune estatikoa barik, etengabeko berrikuntzan dabilen zerbitzua sortzea da, beti erabiltzaileen eskaerak kontuan hartuta garatzen dena.

### ESKER ONEKOAK

Elurneten zerbitzuekin eta Blogari bezalako proiektuekin erdietsitako berehalako arrakasta aurrera jarraitzeko motibazio bat gehiago da Elurneteko langileentzat. Bezeroekin ohiko enpresek baino harreman estuagoa dute, ziurrenik euskaraz jarduteak berezi egiten dituelako. Liher Elgezabal eta Susi Rodriguezek 'zorioneko' ikusten dute beren burua, Elurnetek momentu on asko

**A**gapi

Dekorazioa eta eskaiola  
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak  
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1. ez  
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114  
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko  
herriko taberna


Gosari bereziak:  
Kalea + pintxoak 1,50 €



Euskal Herria  
AURRERA!!



JESUS GALINDEZ, Nº 10  
Telf. 94 473 02 26 - GARAIZAR - BILBO



eman dizkielako eta gizartearen alde zerbait egiten ari direnaren inpresioak harrotasuna sortzen die.

Izan ere, euskararen zein software librearen defendatzaile etsuak dira biak eta Elurnetek beren ideiak aurrera eramateko aukera paregabea eskaini die. Alderdirik politena aukeratzeko orduan, Blogari.neten egindako lan onagatik jasotako eskerronak gogoratu dituzte bi gazte mahatsorriek, hain proiektu handiak dakarren lan eskerge askoz gozoago bihurtzen baitute eskerrak emateko bidaltzen dizkieten mezu guztiek.

Beren filosofia, zerbitzuak euskaraz eskaini eta hortik ateratako etekinak euskaingintzako proiektuetan inbertitzea da, meritu handiko jokabidea, dudarik gabe, eta horregatik gustura daude Susi eta Liher beraiek sortutako Elurnetekin.

**PROIEKTUAK**

Zailtasunak ere badaude, ordea, orain Susi Rodriguezek bi langile baino ez baitaizka soldatapean, Liherren noizean behineko laguntzaz gain. Euskaraz guzti-guztia egi-

ten duen enpresa batentzat lana bikoiztu egiten dela aitortu digu Susik, dena euskarara itzuli beharra daukatelako. Hitzaldiak egiteko, adibidez, material didaktikoa beraiek sortzen dute, euskaraz dagoen hutsunea betetzeko asmoz eta ordenagailuetan sartzeko programa asko ere euskaratu egin behar dituzte. Bezeroak aurkitzeko orduan, haatik, euskaraz aritzea ez da inola ere oztopoa eta Elurnet martxan hasi zenetik ez dute eskari faltarik izan.

Negozioa finkatuta dagoela esan daiteke eta Susi Rodriguez hasi da dagoeneko etorkizunean pentsatzen. Daukatena mantendu nahi dute, baina berrikuntzei muzin egin gabe eta, horregatik, hainbat proiektu dauzka buruan, pixkanaka horietako batzuk garatzen joateko asmoarekin. Esaterako, ahalegin berezia egiten ari dira informatikaren gaineko euskarazko material didaktikoa sortzeaz gain, bildu eta hedatzeko.

Orain arteko ikastaroetan prestatu duten materiala argitaratzeko asmoa ere badute edo bestela, sare-

an edonorentzat eskuragarri jartzea ere aztertzen ari dira. Beren ekime- nez asmatutako aplikazioak eta programak ere egin nahiko lituzkete, gaur egun eskariz bakarrik egiten baitituzte, eta are gehiago, Susik eta Liherrek Elurnet sortu zutenetik duten ametsa gauzatu nahiko luke- te, hau da, beraiek beren hizkunt- zan sortutako aplikazio bat nazio- artera hedatzea eta originalki eus- karaz sortutakoa beste hizkuntza batzuetara itzulita ikustea, oso zaila dela aitortu duten arren.

Bezeroekin aurrez aurreko harremana ere hobetu nahi dute. Izan ere, orain Asuan daukate bulego txiki bat, BEAZ enpresa haztegi publikoaren barruan, eta ez da oso erosoa bilerak egiteko. Laster, bulego berriak irekiko dituzte, Santutxuko Lauaxeta pla- zan eta horrela, bezeroei behar bezalako harrera egin ahal izango diete eta langileentzat ere apro- sagoa izango da, momentu hone- tan lanik gehiena etxetik egin behar dute eta.

Web orriak: [www.elurnet.net](http://www.elurnet.net) eta [www.blogari.net](http://www.blogari.net)

**e  
l  
k  
a  
r  
r  
i  
z  
k  
e  
t  
a**

**EIDER URUBURU**

*“Baserriak etorkizuna dauka baina beste bide bat topatu behar du”*




*Eider Uruburu oso ezaguna da Santutxualdean. Baina azkenaldian gutxiago dabil auzotik. Beste askok bezala, lana du arrazoi. Baina besteak ez bezala, Eiderrek kalea utzi eta baserrira joan da, nekazaritzatik bizitzeko asmoz. Irailean hasi zen eta orain arloetako lehenengo emaitzak jasotzeko ordua heldu zaió. Nekazaritza ekologikoan jarduten du, solo eta ortuetan botika kimikorik ezertarako erabili barik. Berarekin egon gara Mendatako Andikoetxean, Txileko Anamuri emakume nekazarien elkarteko Paulinarekin batera.*

*Testua: Hektor Ortega  
Argazkiak: Iñigo Azkona*

U  
G  
U  
D  
N  
D  
E  
R  
T  
O  
N

D  
A  
K  
A  
R  
K  
A  
I





**Sasoi baten jende gehiena baserrik kalera joaten zen. Zuk kontrako bidea egin duzu. Zergatik?**

Kalea ez zaidalako gehiegi gustatzen. Bilboz nekatu naiz eta aukera on-ona eduki dut. Familiak badauka etxe bat, badauzka lur sailak... familia baserrik kalera joandakoa da, baserriko kontuak kontrolatzen ditu eta laguntzeko prest dago. Ez nekien zer egin nire bizitzarekin eta nekazaritza modulu bat ikasten hasi nintzen. Urte bi eman nituen eta nekazaritza gustatzen zitzaidala ikusi nuen. Praktikak lehenengo urtean Iparraldean egin nituen eta bigarrean Ajangizen.

**Zelako prestakuntza izan zen?**

Han nekazaritza moduak ikasi nituen: arrunta kimikoekin, ekologikoa eta hidroponikoa, lurrik gabekoa. Izutu nintzen ikusita zelan egiten den lan, zer jaten dugun eta lurra zelan tratatzen dugun. Pentsatu nuen: 'niri hau gustatzen zait baina nik modu ekologikoan egin nahi dut'.

**Baserrik gisa hasi aurretik oztopoak ere kontuan hartuko zenituen. Berbarako, baserrik bizi daiteke gaur egun?**

Praktikak egiten ibili naizen bitartean baserriarrak ezagutu izan ditut, baserrik bizi direnak, baita modu

ekologikoan produzitzen dutenak ere. Egia da jende gutxi dela baserrik bakarrik bizi dena, baina egin, egin daiteke. Niri animu pilo eman didate. Berrizko jendea, Ajangizekoa, ... Beste aldetik, ni bakarrik nago, ez daukat bikotekiderik eta elkarte bat egin nahiko nuke. Norbaitekin behar egitea atseginagoa izaten da. Orain suertea eduki dut alde batetik Txileko Paulina etorri delako, EHNE sindikatuaren bitartez, hemen zer eta zelan egiten dugun ikustera. Baserrik baserri ibili da eta azken txanpa gurean egin du. Lan handia egin dugu elkarrekin. Eta beste lagun bat ere etorri zait irailera arte gurekin behar egitera.

**Beste kontu bat da beharra, berez, gogor-gogorra dela...**

Bai, baina 'sarna con gusto no pica'. Beharrean zabilta eta eguna amaitzerakoan egindakoa ikusten duzu eta kristoren poza da. Eta hasi garenean piperrak jasotzen, letxugak jaten, ... Edo landareak ernetzen ikusten dituzunean...

**Eta eguraldiaren mende bizitzea?**

Hori rollo bat da. Nik negutegiak jarri nahi izan ditut eta horrela produkzioa segurtatu. Baina alderdi hau Urdaibai barruan dago eta negutegiak ipintzeko sekulako txostenak egin behar dituzu lehenengo Udaltxean eta gero Urdaibaiko patrona-

tuan aurkezteko. Tramitazio luzea da berez, eta gainera hemengo udaleko ei ahaztu zitzaien, ... egizu kontu. Hori lortu arte ezin dut ezer egin. Otsailetik zain nago eta bitartean, zeruari begira.

**Arazorik handienetako bat izaten da bitartekariak ederto estutzen dutela baserriarra...**

Bai. Nire hautua produkzio ekologikoa izan da. Horrek lan handiagoa dakar, -belar txarrak eskuz kendu behar dituzu, ... produkzioa txikiagoa da, ... Landare berdinak botika kimikoarekin tratatuta, askoz gehiago ematen du. Horrek prezio bat dauka, jakina, ordu gehiago sartzen dituzu gutxiago jasotzeko. Beraz, jenero horrek gehiago balio du. Baina konturatu naiz, azoketan errepertuta, bitartekariak kenduz ekologikoa saltzen duenak ez duela hain garesti saltzen. Produktu kimikoekin lortutakoak baino garestiagoak baina supermerkatuetakoak baino merkeagoak dira. Eta labeldunak ere garestigarestiak dira. Eta horiek ez dira ez ekologikoak eta batzuetan ezta bertokoak ere. Nire asmoa da azoketan zuzenean saltzea, Gernikan eta Bilboko Erriberan. Eta gero otzarak prestatu ekologikoa jan nahi dutenei saltzeko.

**Baserriko produktuek izen ona eduki badaukate. Hala ere, merezki bezala baloratzen ditugu?**

Jendeak bai, badaki baserriko produktua hobea dela supermerka-

tukoa baino. Instituzioek ez hainbeste. Aurten, esate baterako, hasi nahi dugunontzako diru laguntzak murriztu dituzte baina gehien bat azalera handiko supermerkatuak hornitzen dituen banaketa kooperatiba bati saldu ezker, laguntza handiagoa ematen dute eta azoketan saltzen baduzu ez. Erraztasunak bide batera begira daude. Eta nik ez dut nahi diru laguntzez bizi, baserriarrak bere lanetik bizi behar du-eta.

**Lehenengo urtea betetzekotan zaude. Pentsatu bezala joan da?**

Arinago ibiliko nintzela pentsatzen nuen. Beste martxa batekin.

**Lur sail zabalak behar ditu nekazari batek baserrik bizitzeko?**

Ez dut uste. Segun zelako nekazaritza egin nahi duzun. Soloan ibiltzeko produkzio ekologikoan ez duzu askorik behar. Badira hektarea bat eta mila metro koadro negutegirekin soldata bi ateratzen dituztenak, justu-justu hori bai.

**Orain arteko pozak?**

Landareak ernetzen ikustea itzela izan da. Beste nekazarietako harremana, azokako giroa, ... Gainera, nekazari gazteen elkarte baten hasi naiz, 'Akuilu', eta betiko nekazaritza eredia defendatzen ari gara. Gaur egun nekazaritza industrializatu nahi dute eta esplotazio txikiak pikutara bidali. Urtean hainbeste desagertzen dira. 'Akuilu'n Hegoaldeko gazte asko elkartu gara eta Iparraldekoekin



ere harremanetan gaude. Baserria etorkizuna daukela pentsatzen dugu eta gauzak egiteko gogo handiak daukagu.

Zelan hartu zaituzte beste baserritarrek? Ikusita neska gaztea datorrela baserritik bizitzeko gogoaz... Batzuek sekulako ilusioaz. Beste batzuek mesfidantzaz: 'Hau bilbotarra, zertan dabil hemen, flipatu egingo du...', baina denek ederto. Batzuek barre egiten dute,



kiak dira. Batzuk izarrak dira: tomatea, piperra, bainak, inddaba,... Inportantea da denetarik edukitzea, errotazioak egitea, ...

**Txakolinaren bidea ere asko zabaldu da azkenaldion...**

Bai. Baina orain lege berria ezarri dute gutxieneko produkzio batera heldu ezean ezin duzula produzitu esanez. Orduan, ekoizle txikiek edo elkartu eta sekulako muntaia egin edo bestela zure etxeko txakolinak ez du balio. Dena doa produktore txikien kontra. Aziendekin berdin: hiltegiak, labela, ... Euren markatzen dizute zelan produzitu, prezioak, ... Okel asko kontrolatzen dute eta euren baldintzetan merkaturatzen dute. Beste bide bat topatu behar dugu. Euren prezioekin ezin duzu bizimodua atera.

**Baserritarrak zelan ikusten du Europa?**

Ni oraindik berde nago baina ikusten dudana ez zait gusatzten. Nire ustez, betiko nekazaritza itotzen ari dira eta haren ordez fabrikak sustatzen dituzte: okela fabrikak, esne fabrikak, barazki fabrikak,... Bolumen handiak, euren prezioak, ... eta txikia itota.

**Hori dena jakinda, baserriak etorkizuna daukela uste duzu?**

Bai, baina erdiko bide bat topatu behar du. Ahaztu diru laguntzak, gure erara produzitu gure herriarentzat.

**Zure burua nekazaritzat daukazu?**

Ez, kar, kar. Oraindik ez. Hazten nago, ikasten nago. Proiektu bat naiz.

beste batzuek lagundu, denek aholku ematen didate... Gainera, bertokoen laguntza asko eskertzen dut, eretik sasoia noiz den jakiteko, norberaren 'trukuak',... Poz-pozik.

**Baserritik bizitzeko, zeintzuk dira produkturik errentagarrienak?**

Baserritik bizitzeko, lurra osasuntsu mantentzeko eta etorkizuna bermatzeko sasoiko produktuak egoki-ego-

### Zortzi galdera labur

- Film bat: *Asko daude, ezin bakarra esan.*
- Liburu bat: *'El médico'. Noah Gordonena.*
- Kantu bat: *'La maldición de Malinche'.*
- Jateko bat: *Kalabaza krema.*

- Kirol bat: *Korrika egitea.*
- Leku bat: *Ordessa.*
- Mendia ala hondartza: *Mendia, jakina.*
- Amets bat: *Baserritik bizimodua ateratzea.*

## Eguzkiaren beldur zara?

JOSEBA (BEGOÑA)

BAI, BAINA KREMA BOTATZEN DUT IA BETI. HALA ERE, UDAKO LEHEN EGUNETAN GEHIEGI FIDATZEN NAIZ ETA URTERO ERRETZEN NAIZ.



NURIA (TXURDINAGA)

BAI, BELDUR NAIZ, NAHIZ ETA EGUZKIAZ BABESTEKO PRODUKTUAK ERABILI. HONDARTZAN, MENDIAN ZEIN KALEAN ERABILTZEN DUT KREMA EGUZKIA DENEAN.


MARIA (SANTUTXU)

BAI, BELDUR DIOT, EZ DAKIT ZER EGINGO GENUKEEN HEMEN 45 GRADUREKIN. NI SAIA-TZEN NAIZ EGUZKITAN EZ EGOTEN BEROEGI JOTZEN BADU, BEHINTZAT.



ANTONIO (SANTUTXU)

EZ DIOT BELDUR EGUZKIARI, NIRI EGUZKITAN ETZAN-DA EGOTEA ASKO GUSTATZEN ZAIT.



ITXASO (SANTUTXU)

ERRESPEITU PIXKA BAT DIOT EGUZKIARI. DENA IZORRATZEN ARI GARA, BESTEAK BESTE, OZONO GERUZA. HOBERANTZ GOAZENIK.



ESTI (MENDATA)

EZ NAIZ EGUZKIAREN BELDUR. BERE BILA NOA ENERGIA EMATEN DIDALAKO.



JOKIN (SANTUTXU)

BELDUR APUR BAT DIOT EGUZKIARI, GAINERA LARRUA ZURIXKA DUGUNOK ARRETA PIXKA BAT JARRI BEHAR DIOGU.



## Mahatserrian azkenokaz izan direnak

### Garraio publikoa, Txurdinaga, Otxarkoaga eta Uribarriko bizilagunen kezka nagusia da

#### Lana, aparkalekuak, etxebizitza eta segurtasuna ere sarri aipatu dituzte

*Garraio publikoa da Txurdinaga, Otxarkoaga eta Uribarriko auzotarren kezkarik handiena. Horixe da, behintzat, Bilboko Udalak 2006an egindako ikerketa baten ondorioa. Bestelako*

*gaiak ere azaldu izan dira kezka iturri gisa, batez ere lana, aparkalekuak, etxebizitza eta segurtasuna. Azken horrek gorakada itzela eduki du azken urtebetean.*

Ikerketaren zati bat barruti kontseiluetako elkarteetako ordezkariekin egin zuen Bilboko Udalak. 2006ko urtarrilean barruti bakoitzean eztabaida taldeak sortu eta lekuan lekuko arazoak zeintzuk ziren zehaztu zituzten. Bigarren zatia, ostera, enpresa pribatu batek egindako 1.200 telefono deien bidez gauzatu dute.



ondorioak atera zituzten. Uribarriko barrutitik hasita, lehenengo eskaria metroari lotuta dago. Metroa eskatu zuten eta beste auzo batzuen aldean diskriminatuta sentitzen dira. Bigarren arazo nagusia Zumalakarregi etorbidea aipatu zuten, Uribarri eta Zurbaren arteko hesia. Ikerketak, hala ere, ez du argitzen oraingo obrak -boulevard gisa egokitzten hasi dira- nahikoak

Norbanakoen galdeketatik hasita, Begoñako errepublika zaharreko auzoetako dagokienez, Uribarri, Txurdinaga eta Otxarkoagako auzoak bat datoz euren kezkarik handiena garraio publikoarekin lotuta dago. Jakina denez, aspaldiko eskaera da auzo horiek metro bidez komunikatzea, baina oraingoz ez da egin eta agintariak darabilten proiektua ez da bete-betean metroa, Eusko Trenen lerroaren luzapena baino.

diren arazo hori konpontzeko. Eta hirugarren lekuan, aparkatzeko arazoak aitatu zituzten Uribarriko elkarteek.

Otxarkoaga eta Txurdinagako barrutiari dagokionez, elkarteek segurtasuna eduki zuten hizpide nagusia. Droga trafikoa jaitsi den arren, herritar batzuek segurtasun falta igartzen dute eta atzerritar pobreen etorrerarekin lotu zuten. Bigarren arazo gisa, metro falta aipatu zuten, autobusek ibilbide luzeegiak egiten dituztela nabarmenduz. Hirugarren, auzo horietan merkataritza oso urria dela esan zuten.

Horrez gain, Uribarrin aparkalekuak aitatu zituzten kezka iturri nagusi lez eta Otxarkoaga-Txurdinagan lana. Santutxu eta Begoñan, ostera, kezka Bilbo mailako berdina izan ziren. Horiek zeintzuk diren? Bada, trafikoa, segurtasuna eta etxebizitza. Dena dela, hiru horien artean segurtasuna da gorantz nabarmen egin duena azken urtebetean.

Eta, azkenik, Santutxu eta Begoñako kasuan, barra-kei lotutako zikinkeria lehenengo postuan jarri zuten, aparkatzeko arazoak bigarren eta hirugarren adineko pertsonen beharrianak.

#### ELKARTEEN IRITZIAK

Elkarteen bidez egindako eztabaida taldeetatik antzeko

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyector Instalador  
Presupuestos Autorizado

**J. Ruiz**

\*Obras, mantenimientos y reparacion de instalaciones  
\*Acumuladores, tarifa nocturna y calefaccion bajo consumo  
\*Porteros automaticos y videoporteros  
\*Aire acondicionado

Juan de Gissano la nº9 Loran 48004 Bilbao Fax: 944111652-Tf: 656703855

**BI-96.0-FM**  
Bilbo Hiria irrati  
www.bilbohiria.com



#### MUSIKA EGUNA.-

Bazter askotara eraman zuen musika Bilboko Udalak ekainaren 21ean. Europako Musika Egunaren ospakizuna gure auzoetara ere zabaldu zen. Besteak beste, Matikon, Etxebarria parkean, Santutxun eta Otxarkoagan rock kontzertuak egin zituzten. Argazkian, Otxarkoagako saioaren hasiera, Ugarte plazan, auzoko jaietako txosnen alboan.

#### BERBALAGUNEN OSPAKIZUNA.-

Lehenengo ikasturtea amaitzeko, Berbalaguna proiektuko kideek jaiak egin zuten Arbidea kaleko euskaltegian. Lehenengo trivial txapelketa eta gero pintxo lehiaketa. Gustu-gustura gelditu ziren, argazkian ikusten den legez. Aurten 120 pertsona ibili dira asteen behin euskara praktikatzeke batzen diren bost lagunetako talde horietan.



#### TRAFIKO ANABASA SANTUTXUN.-

Ekainaren 7ko goizean goiz Santutxuko Karmelo kalea trafikorako utzi eta auzo barruko kaleetan ibilgailuen norabidea zeharo aldatu zuten. Egunak aurrera egin ahala egoera lasaitu bada ere, lehenengo orduetan nahaste-borraste itzela suertatu zen. Atasko ikaragarria sortu zen. Taxis-tak kezu ziren, goizeko zortziak arte udaltzainik ez ei zelako azaldu.

**EKAINA**

JORDANIA	784 Euro
MALLORCA	315 Euro
TENERIFE	340 Euro
PRAGA	420 Euro
ESTAMBUL	343 Euro

mikelizargi@euskalnet.net  
**Izargi Bidaiak**  
GRUPO STAR www.ibiltari.com

**KAIKU**  
Munduko Herrien Etxea  
Arzuaga 1 Santutxu

**ADI**  
ASESORIA FISCAL, CONTABLE, LABORAL, JURIDICO, MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza**




### GAZTAIA ETA ARTZAINAK.-

Ekainaren 20an hogeita hamar bat lagun batu zen Idiazabal gaztaien dastaketara. Asapalak antolatu zuen eta bertan eskal artzainen historiaren berri ere eman zuten, labur bada ere. Hitzaldia, Arantzazuko Artzain Eskolako Nikolas Segurolak eta Batis Otaegik eman zuten. Giro ederrean, gaztaiak ezagutzen ikasi zuten Garaio txokoan batutakoek.

### AZURLEKU URBANIZATZEN.-

Bilboko Udala Azurleku etxe-multzoko kaleak urbanizatzen ari da. Auzokoek kale horiek Udalaren esku laga eta gero, orain espaloiak zabaldu eta egoki ipintzen ari dira. Bitartean, beheko kalea trafikoari etenda eduki dute.



### BOULEVARD ATONTZEN HASI DIRA.-

Iragarri bezala, ekainarekin batera Maurice Ravel eta Zumalakarregi etorbideak boulevard gisa atontzen hasi dira. Obrak Salbetik Trauku kalerainoko zatian eta Begoñako tuneleko alde bietan hasi dituzte. Horiek amaitutakoan, etorbide biak elkartzen diren lekuan biribilgune (errotonda) handia egingo dute.

## 1936ko borrokalari antifaxisten omenez oroitarria paratu dute Artxandan

Ekainaren 18an inauguratu zuten ehunka lagunen aurrean

*Artxandako gainean paratu dute 'Hatzmarka', 1936an faxismoari armak eskue-tan hartuta aurre egin zioten miliziar eta gudari guztien omenezko eskultura. Oroitarriaren inaugurazioan guda hartako beterano eta senide asko azaldu zen, ikurriñez eta Espainiako Errepublikako banderez hornituta. Iritzi kritikoak ere ez dira faltatu, 'benetako' omenaldi bat eskatuz.*

Juan Jose Novella Portugaleteko eskultorearen 'Hatzmarka' oroitarri erraldoia Artxandako gainean jarri dute, parkearen erdian. Aztarna horrek gogora ekarriko ditu aurretzean 1936ko gerran faxismoari aurpegia eman zioten guztiak. 69 urte joan behar izan dira euren akordua kalean merezi zuten ohorearekin paratu arte.

Artxanda aukeratu zuten horretarako Aterpe 1936 elkartekoek. Izan ere, Bilboren defentsan azken gatazkak bertan gertatu ziren. Miliziar eta gudariak sendo eutsi zuten ahal izan zuten bitartean, euren biziak eman ez.

Aterpe 1936 elkartean alderdi eta sindikatu askotako gudari eta miliziar ohiak batu dira oroimen hori sustatzeko asmoz. Elkarteko lehendakariordea Jose Maria Osoa de Txintxetru mahatsorria da. Berau EAJren Euzko Gudarosteko lehendakaria ere bada.

Ekitaldian Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, Iñaki Azkuna alkateak eta Jose Luis Bilbao ahaldun nagusiak egin zuten berba. Hirurek borrokalari haiek eskainitakoa eskertu zuten. Alkateak bere aita ekarri zuen gogora, Artxandan bertan borrokatu zuelako. Eta Bilbaok eskerrak eman zizkien "gaur egun garena zuei esker garelako".

Behin diskurtsoak amaituta, eskultura inauguratu eta argazkiak egin zituzten. Krabelin gorriak laga zituzten bizia eskaini zuten guztien ome-

nez. Eta Bilbo eduki zuten begien bistan, bertatik ikuspegi ederra dago-eta, kosta ahala kosta Bilbo defendatu gura izan zuten haiek gomutan hartuta.


#### KRITIKAK

Omenaldira 1936ko indar antifaxista guztiak azaldu baziren ere, kritikak ez dira faltatu. Alde batetik, alderdi batzuek salatu dute euren izena erabili izana, nahiz eta ekitaldiaren antolaketarako gonbiterik jaso ez duten. Horixe da EAE-ANV eta Izquierda Republicanaren kasua.

Bestalde, 'Ahaztuak 1936-1977' eta 'Geureak 1936' elkarrekin omenaldia kritikatu dute edukia falta zaiola-koan. Izan ere, euren iritziz, justizia egin behar zaie omenaldiekin

hasi baino lehen. "Eta hori ikusi barik hil dira asko, eta gainerako askori berdin gertatuko zaie ez bada laster egiten", esan dute. Ildo horretan, Javier Madrazo sailburua kritikatu dute, "borrokalari asko diru laguntzetatik kanpo laga dituelako" eta sinbologia frankista gure kaleetatik kentzeko "batere asmorik ez dagoelako", besteak beste. Ekitaldia 'marketing politikitzat' jo dute.

Kritikak kritika, elkarrekin Artxandako omenaldian parte hartu zuten, euren pankarta eta mezu propioarekin.



Argazkia: Luis Jauregialtzo






**MAHATSERRIKO ALDIZKARIA hartu bertan etxean!!!**

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: .....  
 Herria: ..... Herraldea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digito): .....




**PICO DE LOS JORRIOS (837 M.) SAUCE CUETO (TURTZIOZ)**

Turtzioz herrira helduko gara, handik Cueto (1,7 km.) auzoraino. Eliza pasatu eta gero bide asfaltatua amaitzen denean utzi genuen (A) autoa. Nahiz eta Cuetotik Jorrios mendira arte ikur zurigorriez oso ondo markatuta egon, gure ibilbidea nola den esango dizuegu.

Autoa utzi genuen lekutik, hiru basabide irtetzen dira. Erdikotik ibiliz, laster, ezker aldean eta erdi ezkutututa ur gordailu bat ikusiko dugu eta apur bat geroago ate moduan, burdinazko hesi zahar handi bat. Ehun metrotara beste hiru basabide daudenez, erdikotik jarraituko dugu aldapa nahiko gogorrean Cueto-ko 'Hiru Etxetxoak' (B) deritzen tokira heldu arte.

Nahi badugu basabidetik igoko gara (bere lehen biragunean hauetariko etxetxo bat dago); baina guk lehenengo ikusten den etxetxoaren ondotik zuzen jarraitu genuen, laster beste etxetxoaren alboetik igarotzeko eta bide horretatik denbora gutxitan, lehen ekarri dugun basabide nagusira sartzeko.

Apur bat aurrerago lepo (C) batean kokatuko gara, eta berriro egongo gara bidegurutze handi batean. Guk hartu behar dugun basabidea gorantz abiatzen da eta lehen bezala zuri-gorritz markaturik dago. Handik denbora gutxira (hamar minutu inguru) (D) ubide batekin egingo dugu topo. Handik ubidea zeharkatu gabe eta basabidea utziz, eskumarantz eta ubidearen ondotik doan bidexka jarraitu (ikurrak ikus daitezke) eta laster pinudi bat inguratuko dugu. Hori amaitzean (E) tunel bat eta honen ondoan zementuz egindako urtegi antzeko bat ikusiko ditugu. Tunelaren bidez leku horretatik mendiaren beste aldera bidaltzen dute ura eta han mendiaren bestaldean, Remendon basoan, dagoen ubidearekin egiten du bat, Guriezo aldean dagoen Juncal urtegiara joateko.



Aipatutako tunelaren ondotik basabide zabal bat aurkituko dugu, handik gora biragune batzuk eginez (F) lepo batera helduko gara. Lepo horretan trikuharri baten aztarnak ikus daitezke haizaren kontra.

Eskuinerantz eta ikurrak jarraituz, beti harri tartean gorantz, ordu laurden batean Jorrios (837 m.) gailurra lortuko dugu.

Guztira ordu bat eta 30'.

**Sastreria PEDRO**  
**IRUDIA SORTZEN DUGU**  
 BILBO  
 Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Spedro  
 Tfnoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

**HORTZ KLINIKA**  
 GERMÁN BERGARETXE  
 GABRIEL ARESTI, 30 4. G  
 TXURDINAGA  
 011-039997  
 94 412 82 74

**MESÓN GURETXE**  
 Santutxuko poteo gunean



## ZURBARANGO INSTITUTUA ZAHARBERRITUKO DUTE

*Duela sei urte asmoa zena egia bihurtzeko bidean da. Zurbarango inisituak 30 urte baino gehiago ditu eta irudia aldatzeko garaia heldu zaio. Urte bi barru guztiz aldatuta egongo da. Hori da epea zaharberritze lanak amaitzeko, baina, eskarmentuak irakasten duenez, epe horiek ez dira beti fidagarriak izaten. Dena dela, poz-pozik agertu dira ikastetxeko sektore guztiak proiektuari begira.*

*Testua: Itxaso Perez*

Gaur egun eraikin zahar bitan eta prefabrikatu batean sartzen dira Zurbarango eskola eta institutuko gelak eta bulegoak. Ikastetxe biek kiroldegia konpartitzen dute. Zeharo aldatuko da ordea institutuko banaketa bi urteren buruan, lanak epe barruan amaitzen badituzte beti ere. 22 hilabeteko epea daukate, eta lanak apirilean hasi ziren. Beraz, 2008ko otsaila aldera amaituta egon beharko lirakete. Hala izatea nahiko lukete irakasleek, eguneroko bizimoduari baka itzultzea nahiko luketelako.

Zaratak, kamioitzarrak egunero ikastetxearen ingurutik pasatzen, hautsa... ez da giroa klaseak era egokian eman ahal izateko.

Eraberritze ideia duela sei urte sortu zen, eraikinak urte asko zituelako alde batetik, eta bestetik, DBHko ikasleek euren gelak prefabrikatu batean zeuzkatelako. Lanen Batzordea sortu zen ikastetxean Ikastetxe Kontseilua, irakasleak eta zuzendaritza taldeak osatuta, eta beharrak aztertzeari ekin zioten. Hala ere, Lehen Hezkuntzako eraikinaren era-

berritzea ez dago proiektuan sartuta, Hezkuntza sailekoak izan arren, horretarako bideak ezberdinak direlako. Eta penaz ikusten dute bigarren hezkuntzako institutuko arduradunek, haur hezkuntzako ikastetxea eskolatik kanpo kokatuta dagoelako gaur egun, Panera izenez ezagutzen den etxaldean hain zuzen, haien zat beste eraikin bat egiteko ikastetxean bertan lekua dagoenean.

Eraikin berri oso bat altxatuko da institutuko saskibaloi kantsa zegoen zelaian. Eraikin zaharrek pasare-

la baten bidez lotuko da, bertan bulegoak egongo direla ere. Eraikin berri horretan hogeitabat gela arrunt, bulego batzuk, mintegiak, eta goialdean kirolgune babestu bi, irudian holan agertzen ez den arren.


Egungo kiroldegiaeren beheko aldean, prefabrikatuaren ordez hain zuzen, kirolgunea zabalduko dute. Kantxaren albo horretan hain mailak eta aldagelak ipiniko dituzte. Ondoa, eraikin berriaren gimnasio bat, erabilera anitzeko gela bat, jantokia eta aterpean jolastoki bat. Beheko solairuan, patioa; lehenengoan, jantokia; bigarrenean, gimnasioa, eta azkenenean, erabilera anitzetarako gela oso bat, gaur egun institutuan ez dagoena.

### ZAHARRA BERRI

Eraikin zaharra, aldiz, hustu egingo dute eta barrutik bestela banatuko dute. Lehenengo solairuan erabilpen askotarako bulegoak egingo dituzte: gurasoentzako gela bat, bestea areto bat ikasleak bil daitezten, administrazio bulegoa... . Igogailua ipiniko dute, orain arte oztopo arkitektoniko betetako eraikina zen horretan. Atzean geratuko den eraikinean ez da egongo, beheko honetako goiko solairutik pasarelaren bidez joan ahal izango delako hango goiko solairura.

Egungo banaketarekin zerikusi gutxi izango du eraikin zaharrak. Gelak zirenak zientzia laborategi bi, baita teknologia, musika eta plastika gela bina ere izango dira. Horrez gain informatika gela bakarra izateko bi izatera pasako da. Baina hau dena bigarren fase batean izango da.

Lezamako Trenbide Zaharra kaleetik ikastetxerako sarrera berri bat zabaldu nahi zuten, alde horretatik eta Zurbaranbarri zein Arabella edo



Andra Maritik ikastetxera joaten den jendeak itzelezko buelta eman behar ez izateko. Proiektuan hala agertzen da, baina Udalak baimenik ez du baimenik eman, udal berdegunea izanik hala izaten segitu behar duelakoan.

Aurrekontua, jakina, izugarri handia da. Baina hasieran pentsatu baino apur bat txikiagoa azkenean. Proiektua egiteko iragarkia Euskadiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zutenean, aurrekontua 7.212.145 eurokoa zen (1.200 milioi pezetakoa). Lehiaketa bat izanda, lehiakideek prezioarekin jokaten dute proiektua lortzeko. Ondorioz, azken aurrekontua dezentente jaitsi zen 5.108.603 eurotan geratuz (antzinako 850 milioi pezetakoa). Gastu guztia Eusko Jaurlaritzak hartuko du bere gain.

Proiektua hiru faseetan egingo da. Lehenengoan, goiko eraikin berria, gelek, datorren aste santurako amaituta egon beharko luke. Bigarren fase batean, eraikin zahararen hustuketa eta banaketa berria. Eraikin zahararen liburutegia dago eta lanak hasi orduko ez daukate oso argi non ipini. Beharbada prefabrikatu batean Lehen Hezkuntzako patioan lanak irautu bitartean. Eta azkenik, DBHko lehen zikloko prefabrikatua eraitsi eta kiroldegia zabaldu.

### OZTOPOAK KENDU

Orain arte eskaileraz betetako ikastetxea zena bide egokiagoak izatera pasako da. Hala ere, salbuespen nabarmena dago. Jantokia (ikasle gehienek erabiltzen duten zerbitzua) lehenengo solairuan dago, eta eraikin horretan ez da igogailurik izango.

Eraberritze prozesuan ikasgela kopurua handituko da, ez ordea ikasle kopurua. 17 edo 18 talde izaten dira guztira, eta DBH eta Batxilergoko ikasleentzat pentsatuta dago. Ez da gaztetxo kopurua handituko, beraz. DBHn A eta B ereduak daude eta, horren ondorioz, ikastetxe horretara jotzen dute atzerritar ikasle askok. Eredu hauek izanda eta gaur egun gizarteak eskatzen duenaren arabera, ikasle kopurua ezingo da asko handitu, gizarteak eredu euskaldunetara jotzen duelako.

Dena dela, Lehen Hezkuntzako bertako eskolatik hiru urte barru D ereduko gela bat irtingo da. Hezkuntza sailak institutuko eredu egokitzapena egitea falta da, eta hori ezin da ziurtatu momentuz. Dena dela, eta egituraketari dagokionez, ikastetxearen ekipamendua ikasle kopuruarekiko (200 inguru) alderatuta bikaina izango da.



## RESAKA TALDEAK BERE BIGARREN DISKOA KALERATU DU

Santutxuko musikari bik eta Erromoko beste bik osatzen dute punk banda hori

**Resaka taldeak 'Mejor solos que mal acompañados' diskoa jarri berri du kalean. Euren bigarren lan handia da, orain dela hiru urte 'Balanza' argitaratu zuten eta. Taldean mahatsorri bi eta getxoztar bi dabilta jo eta ke.**

Testua: Eneritz Ibarrodo  
Argazkiak: Resaka

Santutxu eta Erromoko lau kidek osatutako Resaka taldearen bigarren diskoa da 'Mejor solos que mal acompañados', autogestio-natua oraingoa. 1997 urtean sortu zen taldea eta 1998 urterako lehenengo maketa grabatu zuten 'Dales la espalda'. Bi urte geroago, bigarren maketa grabatu zuten, '¿donde esta el arte?'.  
2003 urte hasieran heldu zen euren lehenengo diskoa, 'La Balanza'. Bartzelonako diskografia batekin grabatu zuten hau, nahiz eta esperientzia ez zen oso ona izan. Arazoak izan zituzten konpainia horrekin, eta ondorioz harremana galdu zuten. Horrela, bigarren disko hau euren kabuz ateratzea erabaki zuten. Oihukarekin akordio bat lortu dute hala ere, izan ere, taldeak gastu guz-



tiak ordaindu, eta diskoetxea edizioaz eta Euskal Herriko banaketaz arduratu da.

Bigarren disko hau, oso astiro joan den gauza izan da. Denboraz, sortuta zituzten gaiak biltzen joan eta disko bat osatzeko nahikoa izatean erabaki zuten grabatzea; beraz, duela urte batzuk sortutako kantuak ere aurkituko ditugu disko honetan. Hamaika kantuk osatzen dute 'Mejor solos que mal acompañados' diskoa, eta huez gain, beste lau extra ere azaltzen dira: 'La balanza'n grabatu ez ziren bi kantu eta bi bertsio.

Lehenengo diskoarekin alderatuta, oraingoa landu-  
goa dela esan digute. Soinu aldetik hobeto dago, eta kan-

tuei dagokienean ere landuagoak dira, argiagoak. Beraz, oso pozik daude bigarren lan honekin.

Aipatzen dituzten gaiak dagokienean, kritika soziala egiten dutenak izango dira gehienak, nahiz eta mai-tasuna aurrekoan baino gehiagotan agertu.

Bigarren disko honetako kantu batzuek galdetuta, ondorengo hauek aipatu nahi izan dituzte: 'Rabia y odio', 'La balanza' diskoa grabatu zuten diskoetxeari zuzenduta dagoena; 'Adictiva', jendeari gehien gustatu zaiona, bertan Rein-cidenteseke Fernandok kolaboratzen du; eta 'Flores', singela izango zen hau, konposatu zuten lehenengoa izan baitzen.



Azken kanta horren bideoklipa grabatzen dabilta Bartzelonan.



### BAT EUSKARAZ

Aurreko diskoan bezala, honetan ere, euskarazko kanta bat sartu dute diskoan 'Biru's. Disko guztitan ateratzen dute euskarazko kanta bat, izan ere, nahiz eta taldeko inork euskararik ez jakin, konpromiso hori hartu nahi izan dute euren herriaren hizkuntzarekin.

Disko berriaren promozioa egin nahi dute orain, kontzertuak... Hala ere, hurrengo diskoan pentsatzen jarriak dira. Bigarren hau oso geldo joan den gauza izan dela kontutan hartuta, kontzertuak egiten dituzten bitartean, kantu berriak sortzeari ekitea ere pentsatu dute, hurrengoa arinago etorriko delakoan.

Hurrengo kontzertuek galdetuta, uztailearen 14an Barakaldon dutena aipatu digute. Bestela, udan nahiko geldi ibiliko direla esan digute, irailean berriro ere martxan jartzeko. Abuztua, kantu berrietan pentsatzen jarri nahi dute.


## ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

## Kafe



## Mañari

Médico M. Pedro Cortés, 9  
48006 BILBAO

Telf. 94 411 99 33

## GOJIAN S.C.L.

### LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

## ANDAMIO BARIK

### TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

# horoskopoa



**Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**  
Mundiala, txo, mundiala. Baina ea behingoz amaitzen dan.



**Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**  
Zu, Nostradamus, inoiz asmatu beharko dozu, ezta?



**Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**  
Folklorika batengaitik burumakur zabiltza? Ez hadi memeloa izan, mesedez...



**Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**  
Errondak ordaintzeko adina diru geldituko jatzu errenta aitortpena egin eta gero. Erronda karu-karuak izango dira...



**Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**  
Hondartzan luzitu gura eta uger egiten jakin ez? Denbora gitxi dekozu problematxo hori konpontzeko...



**Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**  
Uda ligetako sasoi izaten da, beren-beregi. Ea aurten...



**Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**  
Parrandarik parranda bizitzeko plan hori ez da bape osasungarria. Osakidetzaren aholkua dozu, deabaldekoa.



**Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**  
Egin kasu Ruperrri eta zaindu maite dozun hori. Ez jatzu damutuko.



**Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**  
Horoskopo honen gainean txarto esaka zabilz, ez dauala predikzinorik egiten... Bada, bat egingo dotsu: Mundiala Argentinak irabaziko du.



**Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**  
Oporrak paraje eder baten emongo dozuz, bake santuan. Baina akorduan euki buruaz be bidaiatu leikeela.



**Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**  
Dopinen kontrako borroka kiroletik jaietara zabaldu gura dabe. Parrandak amaitutakoan, anti-dopin kontrola pasatu beharko dozu.



**Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**  
Horra hor profezia bi, batera gertatzeko: esku artean darabilzun proiektua ondo atarako da eta horoskopo hau desa gertuko da.

# agenda

**UZTAILAK 4-5**  
KALEALDIA.  
BILBOKO KALE NAGUSIAN ZIRKOA.

**UZTAILAK 7**  
HERRIRA PLATAFORMAREN  
MANIFESTAZIOA. RITXI PLAZA.  
20:00ETAN.

**UZTAILAK 9**  
BARGAGAIN (1154 M). URBASA.  
MENDI IRTEERA.  
SANTUTXUKO MENDIZALE TALDEA.

**UZTAILAK 8-16**  
SANTUTXUKO JAIK

**UZTAILAK 11-13**  
KALEALDIA.  
ZAZPI KALEETAN KALE ANTZERKIA.

**UZTAILAK 14-16**  
BILBAO LIVE FESTIVAL.  
ROCK JAIALDIA. KOBETA MENDI.

**UZTAILAK 22**  
MADALENA EGUNEKO  
ITSAS ERROMERIA.  
BERMEO, MUNDAKA ETA ELANTXOBE.

**UZTAILAK 22-31**  
SAN INAZIOKO JAIK.

**Elorrieta**  
**Erreka Mari**  
I.E.F.P.S./G.B.L.H.I.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## BATXILERGOA

teknologikoa **A eta D** ereduak  
humanistikoa **A** eredu

## HEZIKETA ZIKLOAK

Goi eta erdi mailak  
**A** eredu

Informatika  
Elektrizitatea  
Merkataritza  
Administrazioa  
D ereduan ere!

## MATRIKULA

Ekainaren 30etik uztailaren 6rarte (barne)

Lehendakari Agirre 184 Tfnoa. 944028000



[www.elorrieta-errekamari.com](http://www.elorrieta-errekamari.com)